

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

*242/2022 Foru Agindua, apirilaren 29koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak jaulkitako efektu tinbratuak trukatzeko baldintzak eta prozedura arautzen dituena.*

Euskal Autonomia Erkidegoarekin hitzartutako Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsiak, 30. artikuluan ezartzen duenez, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa, sozietate eragiketetan, kanbio letretan eta ordeko balioa edo igorpen zeregina duten agirietan izan ezik; halakotetan arau erkideak aplikatuko dira, eta lurralde historikoetako erakunde eskudunek, halaber, aitortpena aurkeztu eta ordaintzeko ereduak onetsi ahal izango dituzte, baita likidazioaldi bakoitzari dagokion diru sarrera egiteko epeak zehaztu ere, baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauak 35. artikulua xedatzen duenez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezarriko dituen efektu tinbratuen forma, estanzapioa, espeziea, ezaugarriak eta numerazioa, tinbratzea zuzenean lortzeko kasuak eta prozedura, efektu horiek trukatzeko baldintzak, eta haiek balioabatzeko modua.

Ekonomia Itunean jasotako edukari jarraituz, efektu tinbratuak trukatzeko baldintzak araudi erkidean ezarritakora egokitu behar dira. Ondorio horietarako, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamenduak, maiatzaren 29ko 828/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 117. artikuluan ezartzen du zer kasutan onartuko den efektuen zaintzaz arduratzen diren entitateek eta saltzaileek efektu batzuk beste batzuekin trukatzea.

Aurrekoaren indarrez, 2011ko apirilaren 6ko 339/2011 Foru Aginduaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak jaulkitzen dituen efektu tinbratuen trukearen erregulazioa onartu zen. Foru agindu horretan ezarri zen zein kasutan onartuko zen efektu tinbratuak trukatzea, eta zein entitatearen bitartez egin ahal izango zen trukea, baina ez zen zehaztu jarraitu beharreko prozedura. Horregatik, komenigarritzat jotzen da efektu horien trukearen erregulazioa osatzea, eta, horretarako, xedapen berri bat ematea.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

**1. artikulua. Xedea.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak jaulkitzen dituen efektu tinbratuak trukatzeko baldintzak eta prozedura arautzea da foru agindu honen xedea.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

*Orden Foral 242/2022, de 29 de abril, por la que se regulan las condiciones y el procedimiento del canje de efectos timbrados emitidos por el Departamento de Hacienda y Finanzas.*

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, en su artículo 30, establece que el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados tendrá el carácter de tributo concertado de normativa autónoma, salvo en las operaciones societarias, letras de cambio y documentos que suplan a las mismas o realicen función de giro, que se registrarán por la normativa común, en cuyo caso las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso que contendrán, al menos, los mismos datos que los de territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

El artículo 35 de la Norma Foral 18/1987, de 30 de diciembre, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, dispone que el diputado o la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas establecerá la forma, estampación, especie, características y numeración de los efectos timbrados, los casos y el procedimiento de obtener su timbrado directo, las condiciones para el canje de tales efectos y el modo de efectuar la inutilización de los mismos.

Atendiendo al contenido recogido en el Concierto Económico, las condiciones del canje de los efectos timbrados deben ajustarse a lo establecido en la normativa común. A tales efectos, el artículo 117 del Reglamento del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, aprobado por el Real Decreto 828/1995, de 29 de mayo, establece los supuestos de admisión de canje de unos efectos por otros por las entidades encargadas de su custodia y por las expendedorías.

En virtud de lo anterior, por Orden Foral 339/2011, de 6 de abril de 2011, se aprobó la regulación del canje de efectos timbrados emitidos por el departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa. En dicha orden foral se determinaban aquellos casos en los que se admitía el canje de los efectos timbrados, así como las entidades que podían realizar el mismo, pero no concretaba el procedimiento a seguir. Por ello, se estima conveniente completar la regulación del canje de dichos efectos, dictando para ello una nueva disposición.

Por lo expuesto,

DISPONGO

**Artículo 1. Objeto.**

Es objeto de la presente orden foral regular las condiciones y el procedimiento del canje de efectos timbrados emitidos por el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**2. artikulua. Efektu tinbratuak trukatzeko baldintzak.**

1. Martxoaren 22ko 9/2011 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamenduak 30. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, efektu tinbratuak eskuratzen dituztenek ez dute eskubiderik izango zenbatekoa haiei itzultzeko, itzulketa eskatzeko arrazoia edozein dela ere.

2. Efektu batzuk beste batzuekin trukatzea kasu hauetan onartuko da:

a) Mota guztietako efektu tinbratuei dagokienez, zerbitzuko behar edo komenientziengatik zirkulaziotik kentzen direnean, betiere baldin eta osorik eta erabili izanaren seinalerik gabe ageri badira, kasuan kasu emandako xedapenean gaiari buruz jasotzen diren arauekin bat.

b) Notaritzako dokumentuetarako ez beste ezertarako paper tinbratuari dagokienez, trukea onartuko da baldin eta ekartzen den paper zatian Gipuzkoako Foru Aldundiaren folio zenbakia eta tinbrea ageri badira.

c) Kanbio letren kasuan, trukea onartuko da baldin eta idaztean balio gabetzen badira eta josi izanaren seinalerik ez badute, eta haietan inolako errubrikarik, izenperik, edo ondorioak sortu izanaren bestelako zantzurik ageri ez bada.

**3. artikulua. Efektu tinbratuak trukatzeko prozedura.**

1. Zalantzarik egonez gero, Ogasun eta Finantza Departamentuak izango du beti efektu edo dokumentu jakin bat trukatu daitekeen ala ez erabakitze eskumena.

2. Efektu tinbratuak Ogasun eta Finantza Departamentuan aurkeztuko dira, departamentu horrekin banaketa eta salmenta hitzartua edo kontratatua duten entitateek truka ditzaten, departamentu honek emandako jarraibideen arabera.

**4. artikulua. Prozedura arautuko duen instrukzio bat prestatzeko mandatua.**

Ogasun eta Finantza Departamentuko Idazkaritza Teknikoari agintzen zaio behar den instrukzioa prestatu dezala foru agindu honen xede diren efektu tinbratuen trukearen prozedura eta kontrola garatzeko.

**Xedapen indargabetzaille bakarra.**

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik, indarririk gabe geratuko dira foru agindu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, bereziki, apirilaren 6ko 339/2011 Foru Agindua, efektu tinbratuen trukea arautzen duena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak emana.

**Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.**

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta data horretatik aurrera egiten diren trukeei aplikatuko zaie.

Donostia, 2022ko apirilaren 29a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(2704)

**Artículo 2. Condiciones de canje de los efectos timbrados.**

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 30 del Reglamento del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 9/2011, de 22 de marzo, quienes adquieran efectos timbrados no tendrán derecho a que se les devuelva su importe, cualquiera que sea el motivo en que se funden para solicitarlo.

2. El canje de unos efectos por otros será admitido en los siguientes casos:

a) Respecto de toda clase de efectos timbrados cuando sean retirados de la circulación por exigencias o conveniencia del servicio, siempre que aparezcan intactos y sin señal alguna de haber sido utilizados, ajustándose a las normas que sobre el particular se contengan en la disposición que en cada caso se dicte.

b) Respecto del papel timbrado de uso exclusivo para documentos notariales, se admitirá el canje siempre que se aporte la fracción de papel en la que conste el número de folio y el timbre de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) Respecto de las letras de cambio, se admitirá el canje siempre que se inutilicen al escribir y no tengan señales de haber sido cosidas, ni contengan rúbricas o firmas de ninguna clase u otros indicios de haber surtido efectos.

**Artículo 3. Procedimiento para el canje de efectos timbrados.**

1. Será competencia, en todo caso, del Departamento de Hacienda y Finanzas decidir, en caso de duda, si un determinado efecto o documento puede ser objeto o no de canje.

2. Los efectos timbrados se presentarán al canje en el Departamento de Hacienda y Finanzas, por aquellas entidades con las que dicho departamento tenga convenida o contratada su distribución y venta, de conformidad con las instrucciones emitidas por este departamento.

**Artículo 4. Encomienda de elaboración de una instrucción reguladora del procedimiento.**

Se encomienda a la Secretaria Técnica del Departamento de Hacienda y Finanzas la elaboración de la instrucción correspondiente para el desarrollo del procedimiento y control del canje de los efectos timbrados objeto de la presente orden foral.

**Disposición derogatoria única.**

A partir de la entrada en vigor de la presente orden foral quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en esta orden foral, y en particular la Orden Foral 339/2011, de 6 de abril, por la que se regula el canje de efectos timbrados emitidos por el departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Disposición final única. Entrada en vigor.**

La presente Orden Foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y será de aplicación a los canjes producidos a partir de dicha fecha.

San Sebastián, a 29 de abril de 2022.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jokin Perona Lerchundi.

(2704)